

EUSKARAREN ERABILERA
EAEko JATETXE ETA TABERNETAN

2003ko azaroa.

AURKIBIDEA

Aurkezpena eta fitxa teknikoa.....	1
1- Hizkuntza-gaitasuna.....	8
2- Euskararen erabilera ahozko komunikazioan.....	14
3- Euskararen erabilera idatzizko komunikazioan.....	24
4- Euskararen erabilera orokorra: ahozko eta idatzizko erabileraren tipologia.....	34
5- Euskararen erabilerari buruzko balorazioak.....	38
6- Euskararen erabilera normalizatzeko neurriak.....	42
Laburpena eta ondorioak.....	48

ERANSKINA: Taulak.

AURKEZPENA ETA FITXA TEKNIKOA

Azterketa honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko jatetxe eta tabernetan euskarari ematen zaion erabilera aztertzea da. Horretarako, estatistikaren ikuspuntutik establezimendu hauen lagin adierazgarria osatzen duten hainbat nagusi edo arduradunei eginiko inkestaren bidez lortutako datuak hartuko dira oinarri.

Lan hau txikizkako merkataritza-establezimenduetan euskarari ematen zaion erabilerari buruzko azterketa amaitu ostean egin da, galdeketa berbera erabiliz. Hori dela eta, txosten hau ere aipaturiko azterketak zituen sei kapitulu haietan beraietan dago sailkatu:

1. Lehenik eta behin, EAEko jatetxe eta tabernak deskribatuko dira; bertako langileen hizkuntza-gaitasunaren arabera, hau da, euskaraz mintzatzen direnen proportzioaren arabera.
2. Bigarren kapituluan, euskarari ahozko komunikazioan oro har ematen zaion erabilera aztertuko da, baita langileek euren artean nahiz bezeroekin eta hornitzaileekin tratuan ematen dioten erabilera zehatza ere.
3. Jarraian, euskarak idatzizko komunikazioan duen erabilera aztertuko da, bai maila orokorrean eta bai zenbait esparru eta jarduera jakinetan ere: errotulazioetan, karta eta menuetan, faktura eta eskaera-orrietan, publizitatean eta web-orrietan.
4. Laugarren kapituluan, euskarak establezimenduetan duen erabilera orokorra deskribatuko da, ahozko eta idatzizko komunikazioei dagokien erabilera oinarri hartuz garaturiko tipologiaen bidez.
5. Bosgarren kapituluan, elkarrizketaturiko pertsonentzat beren establezimenduetan euskara erabiltzeak duen garrantziari, edo berekin dituen abantaila eta desabantaila buruzko iritziak aztertuko dira.
6. Azkenik, euskara normalizatzeko neurrien alde egin duen hainbat establezimenduk abian jarritako horiek deskribatuko dira. Bestalde, establezimenduek etorkizun hurbilean halako neurriak hartzeko aurreikuspenik ba ote duten edota neurri hauek hartzeko zein alor edo jardueratan leudekeen gertuen ere aztertuko da.

Emaitzak establezimendu-multzo osoa nahiz jatetxe eta tabernak bereizirik kontuan hartuz aztertuko dira, baita neurriaren (langile-kopurua), lurralde historikoen eta gune soziolinguistikoen arabera definituriko kolektiboen arabera ere.

Txostenean emaitzarik garrantzitsuenak bakarrik hartuko dira kontuan. Informazio xehatuagoa eskuratzeko, berriz, Taulen Gehigarria jo daiteke.

FITXA TEKNIKO

Aztertu beharreko unibertsoa.

Aztertu beharreko unibertsoa Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) Enpresa eta Establezimenduen Direktorioan ageri diren 3.311 jatetxeek eta 10.597 tabernek osatzen dute.

Establezimendu hauek ostalaritza-sektorea osatzen duten 15.000 establezimenduen %92 dira. Dena den, azterketa honetatik kanpo gelditu dira honakoak: hotelak eta kanpinak, jangela kolektiboak eta jaki prestatuak egiten dituzten establezimenduak.

Aztertutako lagina

Elkarrizketatu beharreko establezimendu-laginaren diseinua emaitzak jardueraren, neurriaren, lurraldearen eta gune soziolinguistikoaren arabera adierazgarriak izan zitezen gogoan izanik egin zen.

Irizpide honi jarraiki, inkesta-kopuruari zegokion ondorengo erabakia hartu zen:

- Jardueraren arabera: 250 inkesta jatetxeetan eta 250 tabernetan.
- Lurraldeka: 200 Bizkaian, 200 Gipuzkoan eta 100 Araban.

Konpontzeko zegoen beste arazoa establezimenduen neurriaren araberrako adierazgarritasunari zegokiona zen, tabernen kasuan batik bat; erdietan baino gehiagotan (%59) pertsona bakarrak egiten baitzuen lan eta gehienetan, alde handiz, batek edo bik (%87). Hau ikusita, banaketa proportzionalki eginez gero laginak bi langile baino gehiagoko taberna gutxi izango zituzkeen.

Arazoa konpontzeko, bi langile baino gehiago zuten tabernei langile bakarra zutenen aldean lehentasuna eman zitzaien, eta honako banaketa egin zen: %30 langile bakarreko tabernei, %25 bi langileko tabernei, %25 hiru eta bost langile bitartekoei eta %20 bost langile baino gehiagokoei.

Jatetxeen batez besteko neurria nabarmen handiagoa denez (%41ek bakarrik du langile bat edo bi), ez zen hainbesteko arazorik izan. Nolanahi dela ere, kasu honetan ere neurri handiagoko establezimenduei eman zitzaien lehentasuna, laginari ondorengo banaketa emanez: %20 langile bat edo biko jatetxeei, %40 hiru eta bost langile bitartekoei eta %40 bost langile baino gehiagokoei.

Elkarrizketatu beharreko establezimenduak hautatzerakoan, lurralde eta jarduera bakoitzean neurriaren eta gune soziolinguistikoaren arabera bereizi ziren establezimenduak, eta hala definituriko estratu bakoitzetik atera zen lagina, ausazko aterakuntzan oinarrituriko salto sistematikoaren bidez.

Jatetxeen kasuan, laginak maila "bereziko" izendatuko ditugun jatetxeak har zitzan moduan egin zen lagin-ateratzea. Aipaturiko maila horri dagozkionak dira, hain justu, Gastronomiako Euskal Kofradiako Gidako lehen berrogei jate-txeak.

Landa-lana

Informazio-biltzea urriaren lehen hamabostaldian egin zen, establezimenduan bertan bertako nagusi edo arduradunari eginiko elkarrizketa pertsonalaren bidez. Aldez aurretik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak azterketari buruzko aurkezpen-gutuna igorri zien lagina osatzen zuten establezimendu guztiei.

Galdeketa, txikizkako merkataritza-establezimenduetan euskarari emaniko erabilerari buruzko azterketan erabilitako bera eta urte-hasieran 100 langile baino gehiagoko enpresetan euskararen erabilerari buruz eginiko azterketan erabilitakoaren antzekoa izan zen.

Jasotako erantzunaren tasa oso handia izan da; jatorrizko lagina osatzen zuten 500 establezimenduetatik 400 elkarrizketatzea lortu baitzen, hau da, gutzitza %80. Dena den, gainerako establezimendurik gehienak, %13, existitzen ez direnez ezin izan ziren elkarrizketatu, itxirik baitziren. Establezimenduen %3k bakarrik egin zion uko inkesta erantzuteari eta gainerako %4 itxirik zeuden oporren edo obren eraginez, edota ordutegi arraroak zituzten.

Hortaz, galdeketa erantzuteari uko egin dioten kopurua gutxienekoa izan da eta gaitzespen hori, gainera, oso homogeneoa izan da kolektibo ezberdinen artean. Hori dela eta, behin betiko lagina zinez ausazkoa izan dela esan daiteke.

Elkarrizketatu ahal izan ez ziren jatorrizko lagineko establezimenduak, ezaugarri bereko beste hainbatek ordezkatu zituzten: jarduera berekoak, neurri berekoak eta udalerrri edo gune soziolinguistiko berekoak zirenek, alegia.

Emaitzen erabilera

Emaitzak erabiltzerakoan, laginak jarduerari, neurriari eta lurraldeari zegozkion aldagaietan zuen asignazio ez proportzionala zuzendu da, horretarako egokia den neurria erabiliz. Hori dela eta, txostenean aztertutako emaitzak bat datoz aldagai hauek unibertso horretan duten egiazko banaketarekin.

Emaitzak gurutzaturiko tauletara eraman dira, ondorengo gurutzaketa-aldagaiak kontuan hartuz:

- Jarduera: jatetxeak eta tabernak.
- Establezimenduaren neurria: langile 1 edo 2, 3-5 langile, 6-9 langile, eta 9 langile baino gehiago.
- Lurraldea: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.
- Gune soziolinguistikoa: 4. gunea (euskaldunak %80 baino gehiago), 3. gunea (%45etik %80 arte), 2. gunea (%20tik %45 arte) eta 1. gunea (euskaldunak %20 baino gutxiago).

Laginketa-erroreak

Lagin oso honen emaitzei dagokien laginketa-errorea $\pm 6\%$ da, eta %95 konfiantza-maila. Zenbaitetan, konfiantza-maila hau eskasagoa ere izan daiteke

(%50ekoa). 0 eta 10 bitarteko eskalako batez bestekoari dagokionez, errorea $\pm 0,3$ da, baldin eta banaketa normala bada.

Laginaren banaketa jardueraren, neurriaren eta lurraldearen arabera portzionalki egin izan balitz, errorea txikiagoa izango zen, $\pm 4,5\%$ alegia; baina, betiere, emaitzen errorea gutxiengo diren kolektiboetan asko handitzeari esker, bi langile baino gehiagoko tabernetan batik bat.

Jardueraren, neurriaren, lurraldearen eta gune soziolinguistikoaren arabera definituriko kolektibo ezberdinen emaitzetarako, laginketa-errorea $\pm 7\%$ eta $\pm 14\%$ bitartekoa da portzentajeei dagokienez, eta $\pm 0,35$ eta $\pm 0,7$ bitartekoa batez bestekoei dagokienez.

Dena den, lagina diseinatzerakoan lurraldearen, jardueraren, neurriaren eta gune soziolinguistikoaren arabeko estratifikazioa egin dela kontuan hartuz, emaitzen "egiazko" erroreek zertxobait txikiagoak behar dute; aipaturiko diseinua aplikatzerakoan estratu bakoitzaren aldagarritasun-maila asko murriztu baita.

Txostenaren lehen kapitulura igaro aurretik, elkarrizketaturiko establezimendu nagusien eta bertako kolektibo ezberdinen ezaugarri nagusiak deskribatuko dira jardueraren, neurriaren... arabera, baita elkarrizketaturiko pertsonen ezaugarriak ere. Deskribapen honek, azterketako emaitzen interpretazio hobea egiteko bide emango du.

ESTABLEZIMENDUEN DESKRIBAPENA

Datuak aztertu ondoren, eta datu hauek aztergai dugun egiazko unibertsoarekin bat etor daitezten, honako banaketa egin dugu: laurdena, %24, jateak, eta gainerako hiru laurden, %76, tabernak.

Neurriari dagokionez, lautik hirutan, %76tan, lagun batek edo bik egiten dute lan (nagusia barne), %18 dira hiru eta bost langile bitartean dituztenak, %3 sei eta bederatzi bitartean dituztenak, eta %3 hamar edo gehiago dituztenak. Nolanahi dela ere, ondoren ikusi ahal izango denez, jatetxeen neurria askoz handiagoa da batez beste.

Erdia baino zertxobait gehiago, %56, Bizkaian kokatzen dira; hirutik bat, %31, Gipuzkoan; eta %13 Araban.

Azkenik, %5 laugarren gune soziolinguistikoan kokatzen dira, %19 hirugarrenean, %24 bigarrenean, eta gainerako erdia, %51, erdaldunena den lehenengoan.

Neurriaren eta gune soziolinguistikoaren arabera, jatetxe eta tabernen artean alde garrantzitsuak daude.

- Jatetxeen %41ek langile bat edo bi du, baita tabernen %87k ere. Datu horiei kontra eginez, jatetxeen %21ek bost langile baino gehiago du; langile-kopuru hori bera duten tabernak, ordea, %2 bakarrik dira.
- Jatetxeen %37 1. gune soziolinguistikoan (erdaldunenean) kokaturik daude, baita tabernen %56 ere. Honen beste muturrean, berriz, 4. gune soziolinguistikoan kokaturiko jatetxeak %9 dira eta %4 tabernak.
- Lurraldeka ere ezberdintasunak daude; proportzioan (ez guztizko balioetan), Gipuzkoan eta Bizkaian jatetxe gehiago baitago. Tabernen kasuan, ordea, aurkakoa gertatzen da.

Maila "bereziko" izendatu diren jatetxeei dagokionez, gehiengo zabalak, %92k, bost langile baino gehiago du, jatetxeen batez bestekoa baino zertxobait euskaldunago diren guneetan kokaturik daude, eta proportzioan gehiago dira Gipuzkoan.

Neurriaren arabera, jarduerari dagokionez duten hainbat ezberdintasun islatzen da:

- Langile bat edo biko establezimendurik gehienak tabernak dira, %87, baina gune soziolinguistikoari eta lurraldeari dagokionez duten banaketa batez bestekoaren parekoa da.
- Hiru eta bost langile bitarte dituzten establezimenduen erdiak jatetxe dira, %51, gainerako erdia, %49, berriz, tabernak. Proportzionalki, gehiago dira Gipuzkoan eta 3. gune soziolinguistikoan.
- Bost langile baino gehiagoko establezimendurik gehienak jatetxeak dira; %75 bost eta bederatzi lagun bitartekoak eta %83 hamar edo gehiagokoak. Aipatu-

rikoak, lurraldearen eta gune soziolinguistikoaren arabera banaketari dago-kionez, ez dira ia batez bestekotik aldentzen, nahiz eta ia ez dagoen hamar edo hamar langile baino gehiago duen establezimendurik 4. gune soziolin-guistikoan.

Lurralde historikoen arabera ia batere ezberdintasunik ez da, gune so-ziolinguistikoaren arabera banaketari loturikoak izan ezik; Arabako establezi-mendurik gehienak, %84, eta Bizkaiko gehienak ere, %72, 1. gune soziolinguisti-koan kokaturik baitaude, gune erdaldunenean. Gipuzkoako establezimendurik gehienak, ordea, %91, 3. eta 2. guneetan kokaturik daude. Honez gain, Gipuz-koan jotetxeen proportzioa handixeagoa da; Bizkaian, berriz, langile bat edo biko establezimendua.

Gune soziolinguistikoaren arabera ere ez dago alde handirik; lurraldekako banaketari dagokionez salbu. Izan ere, 4. 3. eta 2. gune soziolinguistikoko esta-blezimendurik gehienak Gipuzkoan daude. Honez gain, 4. gunean, euskaldunena den horretan, ia ez da establezimendu handirik.

Hortaz, tabernarik gehienak oso txikiak dira, langile bat edo bikoak, baina ez da gauza bera gertatzen jotetxeetan, erdiak baino gehiagok bi langile baino gehiago baitu.

Eta lurraldekako banaketaren eta gune soziolinguistikoaren arabera ba-naketaren artean den lotura logikoaz gain, honako beste erlazio hauek ere aipa-tzekoak dira:

- Jotetxeen proportzioa, beste bi lurralde historikoen aldean, zertxobait handia-go da Gipuzkoan; tabernena, berriz, handixeagoa Bizkaian.
- Hiru eta bost langile bitarte dituzten jotetxeak, eta neurri txikiagoan baita es-tablezimenduak ere, gune euskaldunxeagoetan kokatzen dira batez beste.
- 4. gune soziolinguistikoan, euskaldunenean, ez da ia establezimendu handi-rik, hau da, hamar langile edo gehiagokorik.

ELKARRIZKETATURIKO PERTSONEN DESKRIBAPENA

Sarrerari amaiera emateko, elkarrizketaturiko pertsonen ezaugarrien deskribapena egingo dugu laburki:

- %74 establezimenduetako nagusiak dira, %10 nagusien zuzeneko familiarekoak eta gainerako %16 bertako arduradunak. Establezimenduak handiago diren heinean, arduradunen portzentajea ere handitu egiten da. Hori hala, gehiago dira, %59, hamar langile edo gehiagoko establezimenduetan.
- %59 gizonezkoak dira eta %41 emakumezkoak. Txikizkako merkataritza-establezimenduetan, ordea, emakumezkoak ziren gehienak, %69.
- Batez besteko adina txikizkako merkataritza-establezimenduetakoa baino aski txikiagoa da; %44k 40 urte baino gutxiago du, %26k 40 eta 49 urte bitarte, eta gainerako %29k 50 edo gehiago. Establezimenduak zenbat eta handiagoak izan, batez besteko adinak behera egiten du; elkarrizketari erantzun diotenak, hein handi batean, establezimenduetako arduradunak izatearen eraginez, agian.
- %26 euskaldunak dira, %17k pitin bat egiten du euskaraz eta %57k deus ere ez. Dena den, jatetxeetan den euskaldun-kopurua, %39, tabernetan denaren ia bikoitza da, %22. Maila "bereziko" jatetxeetan, berriz, euskaldunak gehienago dira, %65.
- %18k euskaraz erantzun du galdeketa, hau da, euskaldunen hiru laurdenak, %3k euskaraz eta gaztelaniaz, eta %78k gaztelania hutsean.


1.- HIZKUNTZA GAITASUNA.

Lehen kapitulu honetan, EAEko jatetxe eta tabernak deskribatuko dira, haietan lan egiten duten pertsonen duten hizkuntza-gaitasunaren arabera, hau da, establezimendu bakoitzeko dagoen euskaldun-kopuruaren arabera.

EAEko jatetxe eta tabernetan dagoen euskaldunen batez besteko portzentajea % 26,6 da; txikizkako dendetakoa (%27,4) baino pitin bat txikiagoa. Hemen ere, egoerak oso desberdinak dira.

- Ia hiru establezimendutik bitan, %60tan, inork edo ia inork ez daki euskaraz (<%10).
- %8tan erdiak baino gutxiagok (%10-40) daki euskaraz.
- %13tan gutxi gorabehera erdiak (%40-60) daki euskaraz.
- %5etan erdiak baino gehiagok (%60-90) daki euskaraz .
- Eta %14tan guztiek edo ia guztiek dakite euskaraz(>%90).

Lau establezimendutik hirutan, %76tan, langile bakarrak edo bik lan egiten dutela kontuan hartuz, logikoa da portzentajeak muturretan eta erdiko puntuan pilatzea nagusiki.





Nolanahi dela ere, establezimenduko euskaldunen batez besteko portzentajea ez da bera jatetxe eta tabernetan; %40 baitira jatetxeetan, eta %22 tabernetan.

Dendetan gertatzen zenaren aurka, jarduera-adarra zeinahi izanik ere ez baitzen euskaldunen portzentajea ia aldatu ere egiten, aztergai ditugun beste es-

tablezimendu hauetan ezberdintasun handiak daude. Alde hauek, nagusiki, jate-
txeak batez beste euskaldunago diren guneeetan kokatzetik sorturikoak dira.

Ondorioz, establezimendukako euskaldunen proportzioaren banaketak
alde handiak ditu jatetxe eta tabernen artean. Hala, tabernetan euskaraz ez daki-
ten langileen portzentajea %68 bada ere, portzentaje horren erdia dira jatetxee-
tan euskaraz ez dakitenak, %34 alegia. Edozein kasutan, kontrako muturrera joz,
euskaraz guztiek dakiten establezimenduen portzentajea parekoa da bi kasue-
tan; %16 baitira jatetxeetan eta %14 tabernetan.

Maila "bereziko" jatetxeetan euskaldunen batez besteko portzentajea are
handiagoa da, %54koa. Horietan, %12 bakarrik dira euskaraz ez dakien inor ez
duten establezimenduak, eta %22 guztiak euskaldunak dituztenak.




EUSKALDUNEN EHUNEKOAK ESTABLEZIMENDUETAN

% Horizontalak	BATEZ BESTEKOAK	Inor ez	Erdiak baino gutxiago	Erdiak	Erdiak baino gehiago	Denak
<i>Jarduera:</i>						
Jatetxeak	%40	%34	%18	%18	%14	%16
Maila berezia	%54	%12	%29	%18	%20	%22
Tabernak	%22	%68	%4	%12	%2	%14
<i>Langile-kopurua:</i>						
1 – 2	%23	%70	%0	%16	%0	%15
3 – 5	%39	%32	%30	%3	%22	%14
6 – 9	%37	%26	%30	%20	%17	%8
> 9	%40	%17	%42	%15	%23	%4

Bi langile baino gehiago dituzten establezimenduetan, euskaldunen batez besteko portzentajea langile bat edo bi dituztenetan baino askoz handiagoa da: lehenengo kasuan %39 lirateke euskaldunak eta %23 bigarrenengoan. Baina ezberdintasun hau tabernetan gertatzen da ia bakarrik, jatetxeetan neurriak ez baitu euskaldunen portzentajearen eraginik. Jatetxeetako portzentajea, %40ko batez besteko balio horretan dabilena da.

Aitzitik, tabernetan aldea garrantzitsua da. Izan ere, langile bat edo bi baino ez dituzten horietan euskaldunen batez besteko portzentajea oso txikia da; %20koa. Bi langile baino gehiago dituztenetan, ordea, %35 inguruko portzentajeak ikus daitezke.



Denden kasuan bezala, ezberdintasun horren oinarrian "konbinatoria hutseko" arrazoi bat dago. Langile bat edo biko tabernetan hiru aukera baino ez daude: inork euskaraz ez jakitea, erdiak bakarrik jakitea edo guztiek jakitea, eta euskaldunen batez besteko portzentajea txikia denez, %22koa, hiruretan aukerarik gehien duena, alde handiz, inork euskaraz ez dakien aukera da. Bi langile baino gehiago daudenean ere, hirutik bostera adibidez, inork euskaraz ez dakien aukera da gailentzeko aukerarik handiena duena; ez, halere, aurrekoan bezainbat, %0 eta %50 arteko bestelako aukerak ere agertzen baitira, hala nola %20, %25, %33 eta %40, batez besteko balioa handiagotzea ahalbidetzen dutenak.


Jatetxeetan aldea oso txikia da; euskaldunen batez besteko portzentajea handia denez, %40koa, langile bat edo bi baino ez daudenean balizko hiru aukerei (inork euskaraz ez jakitea, erdiak bakarrik jakitea edo guztiek jakitea) dagoen probabilitate-maila orekatuagoa baita.

Euskaldunen batez besteko portzentajeari dagokionez, lurraldeka eta bereziki gune soziolinguistikoaren arabera gertatzen da bariaziorik handiena:

- Euskaldunak %45 dira Gipuzkoako establezimenduetan, %20 Bizkaikoetan, eta %10 Arabakoetan.
- Eta %92 dira 4. gune soziolinguistikoko establezimenduetan, %63 hirugarren gune soziolinguistikokoetan, %19 bigarren gunekoetan eta %10 lehen gunekoetan.

Zehatzago esateko, inork euskaraz ez dakien establezimenduen portzentajea honakoa da:


- %40 Gipuzkoan, %67 Bizkaian eta %76 Araban.
- % 0 laugarren. gunean, %21 hirugarren. gunean, %67 bigarren. gunean eta %77 lehenengoan.



EUSKALDUNEN EHUNEKOIA ESTABLEZIMENDUETAN

% Horizontalak	BATEZ BESTEKOIA	Inor ez	Erdiak baino gutxiago	Erdiak	Erdiak baino gehiago	Denak
<i>Herrialdea:</i>						
Gipuzkoa	%45	%40	%8	%12	%11	%29
Bizkaia	%20	%67	%7	%14	%3	%9
Araba	%10	%76	%10	%13	%0	%0
<i>Gune soziolinguistikoa:</i>						
4. gunea	%92	%0	%3	%8	%7	%81
3. gunea	%63	%21	%6	%18	%13	%42
2. gunea	%19	%67	%9	%12	%5	%6
1. gunea	%10	%77	%8	%13	%1	%0

Jatetxe eta tabernak bereizirik aztertuta ere, deskribaturiko joera mantendu egiten da logikoa denez, hau da, euskaldunen batez besteko portzentajea Gipuzkoan eta inguru euskaldunetan handiagoa izatean datzana. Honez gain, euskaldunek jatetxeetan duten portzentajea nabarmen handiagoa da kolektibo guztietan, laugarren gune soziolinguistikoan izan ezik, euskaldunen portzentajea handiagoa baita tabernetan.



Azkenik, establezimendurik gehienetan, %80tan, bertako langileek bezeroei arreta eskaintzen jarduten dutenez, ia ez da alderik oro har establezimenduan lan egiten duten euskaldunen portzentajearen, %26,6, eta bezeroei arreta

eskaintzen bakarrik jarduten duten euskaldunen portzentajearen artean, %27,1, nahiz eta azken hau zertxobait handiagoa den.

Dena den, jatetxeak bakarrik kontuan hartuz, eta erdietan baino gehiagotan bezeroekin harremanean lan egiten ez duten langileak aritzen direnez, establezimenduan lan egiten duten pertsona guztien eta bezeroei arreta eskaintzen bakarrik lan egiten duten euskaldunen batez besteko portzentajearen arteko aldea handixeagoa da; portzentajeak, hurrenez hurren, %40 eta %43,5 baitira.

2.- EUSKARAREN ERABILERA AHOZKO KOMUNIKAZIOAN.


Bigarren kapitulua ahozko komunikazioan euskarari ematen zaion erabilera aztertzea bideratutako da. Horretarako, elkarriketaturiko pertsonak beren erabilerari 0 eta 10 eskalan eman dioten balioa hartu da oinarri. Eskala horretan, 0ak euskara inoiz ere erabiltzen ez dela ematen du aditzera; 10ak, berriz, beti erabiltzen dela.

Lehenik eta behin, establezimenduko jarduera orokorreari dagokien ahozko komunikazioan euskarari ematen zaion erabilera orokorra aztertuko da; segidan, berriz, erabilera jakinagoa aztertuko da, hau da, langileek elkarrekiko komunikazioan nahiz bezero eta hornitzaileekin harremanean erabiltzen dutena. Elkarriketak egiterakoan, erantzunak errazteko helburuz, esparru zehatzei zegokien ahozko erabilerari buruzko galdea egin zen lehenik, eta ondoren, establezimenduko jarduera mordoari zegokionari buruzkoa.

Pentsatzekoa zenez, ia hiru establezimendutik bitan (%60) euskaraz dakinik ez denez, EAEko jatetxe eta tabernetako euskararen ahozko erabilera oso txikia da, 0 eta 10 bitarteko eskalan 1,5 puntukoa, eta honako ezaugarriak ditu:

- Hirutik bik baino gehiagok, %70ek, ez dute inoiz edo ia inoiz erabiltzen (0-1 bitarte eskalan).
- %14k gaztelania baino gutxiago erabiltzen du (2-3).
- %8k gaztelania adina erabiltzen du (4-6).
- %8k gaztelania baino gehiago erabiltzen du (7-10), horietan %3k beti edo ia beti (9-10).



Emaitzak txikizkako dendetan lortutakoekin guztiz bat datoz.



Halere, erabilerak alde handiak ditu jatetxe eta tabernen artean. Jatetxeetan ematen zaion erabilerak, txikia izanik ere, 1,2 puntu baino ez duen tabernetako erabilera bikoizten du batez besteko 2,4 punturekin. Tabernetan euskarari ematen zaion erabilera, gainera, dendetakoa baino ere txikiagoa da.

Portzentajetan hitz eginez, jatetxeen erdiak, %49k, eta lau tabernatik hiruk, %77k, ez dute inoiz euskara erabiltzen. Kontrako muturrean, aldeak txikiagoak dira; euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen duten jatetxeak %11 eta tabernak %7 baitira.

Maila "bereziko" jatetxeetan euskararen erabilera handiagoa da; 3,3 puntu batez beste. %30ek ez du inoiz erabiltzen, %19k gaztelania baino gutxiago, %42k gaztelania adina eta %9k gaztelania baino gehiago.




EUSKARAREN ERABILERA AHOZKO KOMUNIKAZIOAN

% Horizontalak	BATEZ BESTEKOA	Inoiz ez	Gaztelaniaz gehiago	Bietan berdin	Euskaraz gehiago	Beti
<i>Jarduera:</i>						
Jatetxeak	2,4	%49	%22	%18	%7	%4
Maila berezia	3,3	%30	%19	%42	%7	%2
Tabernak	1,2	%77	%12	%4	%4	%3
<i>Langile-kopurua:</i>						
1 – 2	1,3	%76	%12	%4	%4	%4
3 – 5	2,2	%54	%20	%16	%8	%2
6 – 9	2,1	%54	%19	%23	%4	%0
> 9	2,4	%43	%30	%21	%6	%1

Ezagutza-mailan gertatzen zen bezala, erabilera ere bi langile baino gehiago dituzten establezimenduen aldean oso txikia da langile bat edo bi dituztenetan. Puntu-kopurua hurrenez hurren ikusi besterik ez da: 2,2, puntu eta 1,3 puntu. Baina alde hau tabernetan bakarrik gertatzen da.

Jatetxeetan neurriak ez du erabilera-mailako ia alderik eragiten; neurria zeinahi izanik ere, batez besteko balioa 2,4 puntu ingurukoa baita.

Aitzitik, tabernetan aldea handia da; langile bat edo bi dituzten establezimenduetan euskararen erabilera oso txikia baita, 1,1 puntukoa, eta bi langile baino gehiagokoetan, ordea, 1,8 puntuko batez bestekoa duena.



Logikoki, euskararen ahozko erabilera dagokionez jabetxe eta tabernen artean dauden alderik handienak lurraldearen eta, bereziki, gune soziolinguistikoaren arabera dira.

Lurraldeka hitz eginez, erabilera ia nulua da Araban, 0,2 puntukoa, oso txikia edo batez bestekoaz beherakoa Bizkaian, 1,2 puntukoa, eta batez bestekoa baino aski handiagoa Gipuzkoan, 2,7 puntukoa.


Baina Gipuzkoan bertan ere euskararen erabilera txikia da, establezimenduen %43k ez baitu euskara inoiz ere erabiltzen (establezimenduen %40tan inork ez daki euskaraz). Euskara inoiz erabiltzen ez dutenen portzentajea %80 da Bizkaian eta %94 Araban.

Euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen duten establezimenduen portzentajea, berriz, %14 da Gipuzkoan, %7 Bizkaian eta % 0 Araban.

Gune soziolinguistikoei dagokienez, euskararen erabilera ia-ia nulua da 1. gunean, 0,3 puntukoa, baita 2. gunean ere, 0,9 puntukoa, nolabaiteko garrantzia du 3. gunean, 3,6 puntukoa, eta oso handia da 4. gunean, 8,0 puntukoa. Izan ere, azken gune soziolinguistiko honetako establezimendurik gehienetan euskaraz bakarrik edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago hitz egiten da.

Deigarria da, 2. gune soziolinguistikoan euskarari ematen zion erabilera urria; establezimenduen %73tan ez baita inoiz euskararik erabiltzen (%76tan inork ez daki euskaraz) eta horietan batean ere ez baita euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen.

3. gunean ere erabilera handiagoa espero zitekeen. Establezimenduen %28tan ez da inoiz ere hitz egiten, %26tan gaztelaniaz baino gutxiago hitz egiten da, %26tan bata bestea adina erabiltzen da, eta gainerako %21etan bakarrik hitz egiten da euskaraz gaztelaniaz baino gehiago.




EUSKARAREN ERABILERA AHOZKO KOMUNIKAZIOAN

% Horizontalak	BATEZ BESTEKOA	Inoiz ez	Gaztelaniaz gehiago	Bietan berdin	Euskaraz gehiago	Beti
<i>Herrialdea:</i>						
Gipuzkoa	2,7	%43	%27	%17	%8	%6
Bizkaia	1,2	%80	%9	%4	%4	%3
Araba	0,2	%94	%6	%0	%0	%0
<i>Gune soziolinguistikoa:</i>						
4. gunea	8,0	%2	%0	%23	%26	%49
3. gunea	3,6	%28	%26	%26	%17	%4
2. gunea	0,9	%73	%23	%4	%0	%0
1. gunea	0,3	%92	%7	%1	%0	%0

Jatetxe eta tabernetan euskarari ematen zaion erabilera, lurraldeka eta gune soziolinguistiko bakoitzean, txikizkako saltokietan ematen zaionaren oso antzekoa da.

Jatetxe eta tabernetan euskarari ematen zaion erabilera bereizita aztertuz, kolektibo guztietan euskararen erabilera handiagoa da jatetxeetan, 4. gune soziolinguistikoan izan ezik, gune honetan tabernetako erabilera gailentzen baita, euskaldunen portzentajea gune honetan tabernetan ere zertxobait handiagoa delako ziurrenik.




AHOZKO ERABILERAREN ETA HIZKUNTZA GAITASUNAREN ARTEKO ERLAZIOA.

Txikizkako saltegien kasuan bezala, euskararen ahozko erabileraren eta establezimenduko euskaldunen portzentajearen arteko erlazioa oso estua da, bi aldagaien arteko korrelazio-koefizientea oso handia baita, 0,85 alegia.

Hala ere, grafikoan ikus daitekeen bezala, korrelazio hau zentzu batean perfektua bada ere, - erabilera-proportzioak ez baitu establezimenduko euskaldunen proportzioa gainditzen -, ez da hain perfektua beste zentzuan -euskara ez baita beti establezimenduko euskaldunen proportzioak ahalbidetuko lukeen mailan erabiltzen-; nolanahi dela ere, bezeroen artean den euskaldun-kopurua ere kontuan hartu beharrekoa litzateke.

Esaterako, langileen erdia baino gehiago euskaldunak diren establezimenduen %7tan gaztelania bakarrik erabiltzen da eta gaztelania gehiagotan %28tan. Langile guztiak euskaldunak diren establezimenduetan, berriz, %19tan gaztelania erabiltzen da gehiago eta %29tan hizkuntza bat bestea adina.



ERABILERA ESTABLEZIMENDUAN, EUSKALDUNEN PROPORTZIOAREN ARABERA


% Bertikalak	la inork ere ez	Erdiek baino gutxiagok	Erdiek	Erdiek baino gehiagok	la denek
Beti euskaraz	%0	%0	%0	%1	%23
Euskaraz gehiago	%0	%0	%0	%15	%28
Bietan berdin	%0	%0	%6	%49	%29
Gaztelaniaz gehiago	%3	%37	%42	%28	%19
Euskaraz inoiz ez	%97	%63	%52	%7	%0

EUSKARAREN AHOZKO ERABILERA ESPARRU ZEHATZETAN

Establezimenduko jarduera orokorre dagokien ahozko komunikazioan euskarari ematen zaion erabilera orokorra aztertu ondoren, hiru esparru zehatzetako erabilera aztertzeari ekingo zaio: establezimenduko langileen artekoa, bezeroekikoa eta hornitzaileekikoa.

Landutako hiru esparru hauetako euskararen ahozko erabilera, erabilera orokorra bezalaxe, oso txikia da; nahiz eta esparru batetik bestera badiren aldaketa txiki batzuk:

- Bezeroekiko erabilera, erabilera orokorra baino pitin bat handiagoa da (1,9 puntu batez beste).
- Langileen artekoa orokorraren parekoa da (1,5 puntu).
- Eta hornitzaileekikoa orokorra baino zertxobait txikiagoa da (0,8 puntu).




Ahozko erabilera orokorraren eta esparru zehatzetako erabileraren arteko korrelazioari dagokionez, korrelazio hau oso handia da bezeroekiko erabileraren kasuan, 0,96koa, baita langileen arteko erabileran ere, 0,93koa, eta txikixeagoa da hornitzaileekiko erabileraren kasuan, 0,82koa.

Esparru bakoitzeko erabilerak elkarrengandik bereiziriko aldagai bilakatzeko faktore-azterketa batez baliatu ondoren, honakoa frogatu ahal izan da: bezeroekiko erabilerak erabilera orokorraren %42 ematen duela aditzera, langileen arteko erabilerak erabilera horren %35 eta hornitzaileekiko erabilerak aipaturikoaren %20. Saltokiekin alderatuz, bezeroekiko erabileraren garrantziak behera eta hornitzaileekiko erabilerarenak gora egiten duela ikus daiteke.

Ikus daitekeenez, hortaz, ahozko komunikazioaren erabilera orokorra eba-luatzerakoan, elkarrizketaturiko pertsonen hiru esparruetako erabilera izan dute kontuan, baina bezeroekikoa eta langileen artekoa nagusiki.

Nolanahi dela ere, euskararen ahozko erabilera orokorrarekin gertatzen den bezala, euskarari jotetxeetan ematen zaion erabilera tabernetakoa baino bi aldiz handiagoa da hiru esparruetan.

Maila "bereziko" jotetxeetan euskararen erabilera are handiagoa da hiru esparruetan; 3,1 puntukoa langileen artean, 3,5 puntukoa bezeroekiko harremanean eta 2,3 puntukoa hornitzaileekiko hartu-emanen.



Jatetxeei bagagozkie, bezeroekin inoiz ere euskara erabiltzen ez dutenak %43 dira, beraien artean inoiz ere erabiltzen ez dutenak %65 eta hornitzaileekin inoiz ere erabiltzen ez dutenak %72. Bezeroekin euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutenak, berriz, %17 dira, langileen artean erabilera-joera horri berari eusten diotenak %14, eta hornitzaileekin ere hala komunikatzen direnak %5.

Tabernei dagokienez, bezeroekin inoiz ere euskaraz mintzatzen ez diren langileak %70 dira, beraien artean inoiz erabiltzen ez dutenak %83, eta hornitzaileekin komunikatzeko inoiz erabiltzen ez dutenak %89. Euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutenen banaketa, berriz, honakoa da esparruka: %8k bezeroekin, %10ek beraien artean eta %2k hornitzaileekin.

EUSKARAREN AHOZKO ERABILERA ESPARRU ZEHATZETAN

% Bertikalak	Langileek beraien artean		Bezeroekin		Homitzaileekin	
	Jatetxeak	Tabernak	Jatetxeak	Tabernak	Jatetxeak	Tabernak
Beti euskaraz	%9	%7	%7	%5	%3	%1
Euskaraz gehiago	%5	%3	%10	%3	%2	%1
Bietan berdin	%12	%4	%23	%9	%13	%6
Gaztelaniaz gehiago	%9	%3	%18	%14	%10	%4
Euskaraz inoiz ez	%65	%83	%43	%70	%72	%89

Establezimenduen neurriari dagokionez, langile bat edo biko establezimenduetan euskararen erabilera bi langile baino gehiagokoetan baino txikiagoa dela esan behar da. Hau hala izatearen arrazoia, hein handi batean, tabernak, euskara gutxiago erabiltzen dutenak, txikiagoak izatean datza. Aitzitik, jatetxe eta tabernak bereizita aztertuz gero, ez dago neurriaren araberrako halako erabilera-alde handirik, tabernetan bezeroekin ematen zaion erabileran salbu, baxuagoa baita tabernarik txikienetan.

Lurraldearen eta gune soziolinguistikoaren araberrako bariazioak, ordea, kontuan hartzeko modukoak dira, eta erabilera orokorraren joerak aztertzerakoan deskribaturiko berberak mantentzen dira kasu honetan ere; erabilerarik handieneko guneak Gipuzkoa eta gune euskaldunak baitira.

4. gune soziolinguistikoan langileek ia beti egiten dute euskaraz, bai beraien artean (8,7) eta bai bezeroekin ere (8,5); 3. gune soziolinguistikoan, berriz, bezeroekiko erabilera asko jaisten bada ere, nahikoa altu mantentzen da (4,4), baina ez da gauza bera gertatzen langileen arteko erabileran (3,2).

4. gune soziolinguistikoan, gainera, bezeroekin baino zertxobait gehiago erabiltzen da euskara langileen artean (8,5 eta 8,7 hurrenez hurren). Aipaturikoa, tabernetako langileen arteko euskararen erabilera jatetxeetako langileen artekoa baino aski handiagoa izateari zor zaio; 9,4 eta 7,7 hurrenez hurren.

EUSKARAREN AHOZKO ERABILERA ESPARRU ZEHATZETAN (0tik 10era)

<i>Batez bestekoak</i>	<i>OROKORRA</i>	<i>Langileek be- raien artean</i>	<i>Bezeroekin</i>	<i>Hornitzaileekin</i>
<i>Langile-kopurua:</i>				
1 – 2	1,3	1,3	1,6	0,7
3 – 5	2,2	1,9	2,6	0,9
6 – 9	2,1	1,9	2,5	1,1
> 9	2,4	2,0	2,8	1,3
<i>Herrialdea:</i>				
Gipuzkoa	2,7	2,6	3,2	1,4
Bizkaia	1,2	1,1	1,5	0,6
Araba	0,2	0,0	0,5	0,0
<i>Gune soziolinguistikoa:</i>				
4. gunea	8,0	8,7	8,5	4,8
3. gunea	3,6	3,2	4,4	1,9
2. gunea	0,9	0,5	1,2	0,5
1. gunea	0,3	0,1	0,5	0,1

3.- EUSKARAREN ERABILERA IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAN.

Hirugarren kapitulua jatetxe eta tabernetan euskarari idatzizko komunikazioan ematen zaion erabilera aztertzeraz bideratutakoa da. Horretarako, elkarrizketaturiko pertsonak beren erabilerari 0 eta 10 eskalan eman dioten balioa hartu da oinarri. Eskala horretan, 0ak euskara inoiz ere erabiltzen ez dela ematen du aditzera; 10ak, berriz, euskara bakarrik nahiz gaztelaniarekin batera erabiltzen dela.

Lehenik eta behin, establezimenduetako jarduera orokorretan euskarari idatzizko komunikazioan ematen zaion erabilera orokorra izango da aztergai. Ondoren, berriz, erabilera zehatzagoari loturiko, hots, errotulazioari, ticket eta fakturei, karta eta menuei, publizitateari eta web-orriari loturiko gaia jorratuko da. Elkarrizketak egiterakoan, erantzunak errazteko helburuz, esparru zehatzei zegokien idatzizko erabilerari buruzko galdea egin zitzaizen lehenik, eta ondoren, establezimenduko jarduera mordoari zegokionari buruzkoa.

Azterketari ekin aurretik, jatetxe eta tabernarik gehienetan idatzizko komunikazioa gutxi erabiltzen dela nabarmendu behar da, baita kasu askotan erabilera hau errotulaziora, ticketetara eta fakturetara mugatzen dela ere. Zehatzago esateko:


- Establezimendu guztiek ticketak eta fakturak erabiltzen dituzte (%96) edo/eta kanpoko (%97) edo barneko errotulazioak (%85).
- Erdiek karta edo/eta menua dute, nahiz eta aldea handia den jatetxe (%86) eta tabernen artean (%37).
- Erdiek idatzizko publizitatea erabiltzen dute, jatetxeen %62k eta tabernen %45ek.
- Eta %6k bakarrik du web-orria; jatetxeen %18k eta tabernen %2k.

Bestalde, establezimenduaren neurria zenbait eta handiagoa izan, idatzizko komunikazioaren erabilera ere handiagoa da.

Jatetxe eta tabernetan euskarazko idatzizko komunikazioari ematen zaion erabilera oso urria da, hau da, 0 eta 10 bitarteko eskalan 2,3 puntukoa; ahozko komunikazioari (1,5) dagokion erabilera baino 0,8 puntu handiagoa, eta txikizkako saltokietako idatzizko komunikazioaren erabilerari dagokiona (2,0) baino 0,3 puntu handiagoa. Portzentajetan:

- Establezimenduen erdiak, %51ek, ez du inoiz edo ia inoiz erabiltzen (0-1 puntu eskalan).
- %25ek pitin bat erabiltzen du; esparruen erdietan baino gutxiagotan (2-3).
- %9k esparruen erdietan erabiltzen du (4-6).
- %7k esparruen erdietan baino gehiagotan erabiltzen du (7-8).
- Eta %8k beti erabiltzen du (9-10); bakarrik zein gaztelaniarekin batera.

EUSKARAREN ERABILERA IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAN




Oraingoan ere, dena den, erabilera-mailako alde esanguratsuak daude jate-txe eta tabernen artean, nahiz eta ez diren ahozko komunikazioan ziren adina-koak. Jatetxeetan euskarazko idatzizko komunikazioari ematen zaion erabilerak (2,9 puntukoak), tabernetan ematen zaiona gainditzen du (2,1 puntukoa). Taber-netako erabilera, halaber, txikizkako saltokietan ematen zaion erabileraren pare-koa da.

Portzentajetan mintzatuz, jatetxeen %43k ez du inoiz ere euskara erabil-tzen, ezta tabernen %54k ere. Kontrako muturrean, aldeak txikiagoak dira; %10 jatetxeek eta %7 tabernak erabiltzen baitute beti euskara idatzizko komunikazioan.


Maila "bereziko" jatetxeetan aski gehiago erabiltzen da (4,5). %23k ez du inoiz ere erabiltzen, %18k pitin bat erabiltzen du, %33k asko samar erabiltzen du, %12k asko eta %14k beti.


EUSKARAREN ERABILERA IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAN

Jatetxeak



Tabernak






EUSKARAREN ERABILERA IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAN

% Horizontalak	BATEZ BESTEKOA	Inoiz ez	Erdietan baino gutxiagotan	Erdietan	Erdietan baino gehiagotan	Beti
<i>Jarduera:</i>						
Jatetxeak	2,9	%43	%26	%14	%7	%10
Maila berezia	4,5	%23	%18	%33	%12	%14
Tabernak	2,1	%54	%25	%8	%6	%7
<i>Langile-kopurua:</i>						
1 – 2	2,1	%54	%25	%7	%6	%7
3 – 5	3,0	%43	%25	%15	%7	%11
6 – 9	2,7	%51	%21	%9	%10	%8
> 9	3,5	%33	%23	%27	%9	%8

Ahozko komunikazioari zegokion erabileran gertatzen zen moduan, langile bat edo biko establezimenduetan idatzizko komunikazioari ematen zaion erabilera bi langile baino gehiago dituztenetan baino askoz txikiagoa da, baina alde hau tabernetan nabarmentzen da nagusiki.

Hala, taberna txikietan 2,0 puntukoa da erabilera, hiru eta bost langile bi-tartekoetan, berriz, handixeagoa; 2,9koa. Bost langile baino gehiago dituztenetan, ordea, behera egiten du kopuruak, 2,5 puntura alegia.

Aitzitik, jatetxeetan nahikoa egonkor mantentzen da erabilera; 2,8 puntu inguruan hamar langile baino gutxiagoko jatetxeetan, tabernetan bezala pitin bat gora eginez hiru eta bost langile artekoetan (3,1 puntu) eta nabarmen handituz hamar langile edo gehiagoko jatetxeetan (3,7 puntu).



Lurraldeei dagokienez, erabilera oso txikia da Araban eta Bizkaian (0,8 eta 1,8 puntu hurrenez hurren), eta nahikoa handia Gipuzkoan, 4,0 puntukoa alegia.

Euskara inoiz erabiltzen ez duten establezimenduak %33 dira Gipuzkoan, %55 Bizkaian eta %79 Araban. Beti erabiltzen dutenak, berriz, %18 dira Gipuzkoan, %4 Bizkaian eta %0 Araban.


Gune soziolinguistikoan araberako aldeak handiagoak dira; euskararen erabilera oso txikia da 1. gune soziolinguistikoan, 1,0 puntukoa, baita 2. gunean bertan ere, 2,0 puntukoa, nolabaiteko garrantzia du 3. gunean, 4,7 punturekin, eta oso handia da 4. gunean, 8,0 puntukoa.

Deigarria da 2. gune soziolinguistikoan idatzizko euskarari ematen zaion erabilera urria, establezimenduen erdietan ez baita inoiz erabiltzen eta %5etan bakarrik erabiltzen da beti.

EUSKARAREN ERABILERA IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAN


% Horizontalak	BATEZ BESTEKOA	Inoiz ez	Erdietan baino gutxiagotan	Erdietan	Erdietan baino gehiagotan	Beti
<i>Herrialdea:</i>						
Gipuzkoa	4,0	%33	%23	%11	%14	%18
Bizkaia	1,8	%55	%29	%9	%4	%4
Araba	0,8	%79	%13	%8	%0	%0
<i>Gune soziolinguistikoa:</i>						
4. gunea	8,0	%8	%4	%6	%30	%53
3. gunea	4,7	%22	%23	%20	%17	%19
2. gunea	2,0	%50	%35	%4	%6	%5
1. gunea	1,0	%68	%23	%8	%0	%0

EUSKARAREN ERABILERA IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAN (0tik 10era)



Jatetxe eta tabernetako erabilera bereizirik aztertu ondoren ikus ahal izan denez, kasu honetan, ahozko erabileran ez bezala, lurralde eta gune soziolinguistikoaren arabera emaitzetan ez da alde handirik. 4. gune soziolinguistikoan bertan ere, tabernetako erabilera (8,8 puntu) jatetxeetako baino askoz ere handiagoa da (6,9).

EUSKARAREN ERABILERA IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAN (0tik 10era)




IDATZIZKO ERABILERAREN ETA HIZKUNTZA GAITASUNAREN ARTEKO ERLAZIOA.

Derrigorrez hala izan beharrik ez baluke ere, bada erlazioa euskara idatzizko komunikazioan erabiltzearen eta establezimenduan den euskaldunportzentajearen artean. Korrelazio-koefizientea handia da, 0,63koa; ahozko komunikazioan zena baino (0,85) askoz ere txikiagoa hala ere.

Horren inguruan, idatzizko komunikazioan inoiz ere euskara erabiltzen ez duten establezimenduak %66 dira, inork euskaraz ez dakien haietan; %44, erdiek baino gutxiagok dakitenetan; %51, erdiek dakiten haietan; %16, erdiek baino gehiagok dakitenetan; eta %5, guztiek dakitenetan.

Beste muturrean, euskara beti erabiltzen duten establezimenduak %1 dira inork euskaraz ez dakien haietan; %7, erdiek baino gutxiagok dakiten haietan; %4, erdiek dakitenetan; %19, erdiek baino gehiagok dakitenetan; eta %36, guztiek dakitenetan.



ERABILERA ESTABLEZIMENDUAN, EUSKALDUNEN PROPORTZIOAREN ARABERA


% Bertikalak	la inork ere ez	Erdiek baino gutxiagok	Erdiek	Erdiek baino gehiagok	la denek
Beti	%1	%7	%4	%19	%36
Erdietan baino gehiagotan	%2	%6	%1	%11	%31
Erdietan	%4	%9	%20	%30	%13
Erdietan baino gutxiagotan	%26	%34	%25	%23	%15
Inoiz ez	%66	%44	%51	%16	%5

EUSKARAREN IDATZIZKO ERABILERA ESPARRU ZEHATZETAN.

Euskarari idatzizko komunikazioan ematen zaion erabilera orokorra aztertutik ondoren, ondorengo sei esparruetan ematen zaiona aztertzeari ekingo diogu.

Euskararen idatzizko erabilera nabarmen aldatzen da esparru batetik bestera:

- Publizitatean badu halako garrantzia, batez besteko 4,1 punturekin, baita kanpo-errotulazioan, 3,5 punturekin, eta barne-errotulazioan ere, 3,2 punturekin.
- Web-orrietan ematen zaiona, 2,7 puntukoa, orokorraren gainetik dago.
- Karta edo/eta menuetakoa, berriz, erabilera orokorraren parekoa da (2,3 punturekin).
- Eta orokorra baino nabarmen txikiagoa da ticket eta fakturetakoa, hots, 1,1 puntukoa.




Idatzizko erabilera orokorraren eta esparru ezberdinetako erabileraren arteko korrelazioa oso handia da ondorengo hauetan: 0,82koa, barne-errotulazioan; 0,81ekoa ticket eta fakturetan; eta 0,80koa publizitatean. Korrelazio hau pitin bat txikiagoa da kanpo-errotulazioan (0,74koa) eta karta eta menuetan (0,73koa), eta askoz txikiagoa web-orrien kasuan (0,50).

Establezimenduen erdiak, gutxi gorabehera, idatzizko komunikazioa erro-
tulazioan eta ticket eta fakturretan bakarrik erabiltzen duenez, esparru horietako
erabilera da erabilera orokorra gehien definitzen duena.

Ahozko erabilera orokorrean gertatzen zen bezala, jatetxeetako erabilera
tabernetakoa baino nabarmen handiagoa da ia esparru guztietan, batez ere
kanpo-errotulazioan (5,0 eta 3,1 puntu hurrenez hurren).

Maila "bereziko" jatetxeetan, gainera, erabilera are handiagoa da: 5,9 pun-
tukoa, kanpoko errotulazioan; %5,8koa, barnekoan; 5,7koa, karta eta menuetan;
5,2koa, publizitatean; 3,1koa, web-orrietan; eta 2,5koa, ticket eta fakturretan.



Ondorengo esparruetan inoiz ere euskara erabiltzen ez duten jatetxeen
ehunekoak honakoak dira: %49, publizitatean; %48, kanpoko errotulazioan; %53,
barnekoan; %67, web-orrian; %70, kartan edo menuan; %81, ticket eta fakture-
tan. Beti erabiltzen dutenen ehunekoak, berriz, honakoak: %41, publizitatean;
%48, kanpoko errotulazioan eta %27 barnekoan; %20, web-orrian; %26, kartan
edo menuan; eta %11, ticket eta fakturretan.

Tabernetan, berriz, inoiz ere euskara erabiltzen ez dutenen ehunekoak
honakoak dira, esparruka: %55, publizitatean, %67 kanpoko errotulazioan eta
%58 barnekoan; %69, web-orrian; %80, kartan edo menuan; eta %87, ticket eta
fakturretan. Beti erabiltzen dutenenak, aldiz, honakoak: %32, publizitatean; %29
kanpoko errotulazioan eta %22 barnekoan; %29, web-orrian; %17 kartan edo
menuan; eta %6 ticket eta fakturretan.

EUSKARAREN IDATZIZKO ERABILERA ESPARRU ZEHATZETAN

% Bertikalak	Kanpoko erro- tulazioa		Barneko erro- tulazioa		Ticketak, fak- turak		Karta, menua		Publizitatea		Web orria	
	Jatetx.	Taber.	Jatetx.	Taber.	Jatetx.	Taber.	Jatetx.	Taber.	Jatetx.	Taber.	Jatetx.	Taber.
Beti	%48	%29	%27	%22	%11	%6	%26	%17	%41	%32	%20	%29
Erdietan baino gehia.	%0	%0	%1	%3	%0	%1	%1	%2	%1	%0	%0	%0
Erdietan	%4	%3	%10	%10	%6	%4	%3	%1	%9	%10	%13	%2
Erdietan baino gutxia.	%0	%1	%10	%7	%3	%2	%0	%0	%1	%2	%0	%0
Inoiz ez	%48	%67	%53	%58	%81	%87	%70	%80	%49	%55	%67	%69

Establezimenduen neurriari dagokionez, establezimendurik txikienei dago-
kie euskararen erabilerarik txikiena sei esparruetan. Erabilera, ordea, handiagoa
da hiru eta bost langile bitartekoetan, mantendu edo murriztu egiten da sei eta be-
deratzi langile artekoetan, eta gora egiten du berriro hamar langile edo gehiagoko
establezimenduetan. Azken hauek dira gehien erabiltzen dutenak, nahiz eta alde
hori, hein handi batean, euskara gutxien erabiltzen duten tabernak txikiagoak iza-
teari zor zaion.

Jatetxe eta tabernak bereizirik aztertu ondoren, deskribaturiko joera man-
tentzen da oro har bi kolektiboetan, nahiz eta bi kolektibo hauetan neurriari lotu-
riko erabilera-aldeak txikiagoak diren, tabernen kasuan batik bat.

Lurraldearen eta gune soziolinguistikoaren arabera bariazioak, ordea,
kontuan hartzeko modukoak dira, eta erabilera orokorraren joerak aztertzerakoan
deskribaturiko berberak mantentzen dira kasu honetan ere; erabilerarik handie-
neko guneak Gipuzkoa eta gune euskaldunak baitira.

Gipuzkoan establezimendu erdiek baino gehiagok euskara erabiltzen dute
beti kanpoko erro-
tulazioan eta publizitatean, eta hirutik batek barneko erro-
tulazioan eta karta eta menuetan.

4. gune soziolinguistikoan, ia establezimendu guztiek erabiltzen dute beti
euskara erro-
tulazioan eta publizitatean, ia guztiek karta eta menuetan eta ia er-
diek ticket eta fakturetan.

3. gune soziolinguistikoan, berriz, establezimendu erdiek baino gehiagok
erabiltzen dute beti euskara kanpoko erro-
tulazioan eta publizitatean, eta erdiek
barneko erro-
tulazioan eta karta eta menuetan.

2. eta 1. guneetan erabilera kanpoko erro-
tulazioan eta publizitatean baka-
rrik da esanguratsua.

EUSKARAREN IDATZIZKO ERABILERA ESPARRU ZEHATZETAN (0tik 10era)

<i>Batez bestekoak</i>	<i>OROKORRA</i>	<i>Kanpoko errotulazioa</i>	<i>Barneko errotulazioa</i>	<i>Ticketak, fakturak</i>	<i>Karta, me- nua</i>	<i>Publizitatea</i>
<i>Langile-kopurua:</i>						
1 – 2	2,1	3,3	3,0	0,9	1,9	3,9
3 – 5	3,0	4,3	3,8	1,5	2,7	4,4
6 – 9	2,7	3,5	3,6	1,7	2,8	3,4
> 9	3,5	4,4	4,2	1,7	4,1	4,7
<i>Herrialdea:</i>						
Gipuzkoa	4,0	5,4	4,8	2,4	4,1	6,2
Bizkaia	1,8	3,2	2,5	0,5	1,3	3,7
Araba	0,8	0,9	1,9	0,1	0,4	0,6
<i>Gune soziolinguistikoa:</i>						
4. gunea	8,0	9,8	8,9	4,5	7,0	9,8
3. gunea	4,7	6,9	5,8	2,6	5,7	6,1
2. gunea	2,0	3,2	2,7	0,8	1,3	4,7
1. gunea	1,0	1,8	1,8	0,3	0,4	2,0

Web-orrietan euskarari ematen zaion erabilerari buruzko daturik ez da sartu, halakorik duten establezi-
menduak gutxi direnez, kolektibokako emaitzak oso ezegonkorak izan baitaitezke.

4.- EUSKARAREN ERABILERA OROKORRA: AHOZKO ETA IDATZIZKO ERABILERAREN TIPOLOGIA

Tabernetan eta jatetxeetan euskarari ahozko komunikazioan eta idatzizko komunikazioan ematen zaizkion erabilerak bereizirik aztertu ondoren, ahozkoa eta idatzizkoa bateratu eta euskararen erabilera orokorra aztertuko da kapitulu honetan.

Azterketari ekin aurretik, establezimendurik gehienetan idatzizko komunikazioa gutxi erabiltzen dela eta horietan erdiak, gutxi gorabehera, errotulaziora eta ticket eta fakturretara mugatzen direla azpimarratu behar da berriro.

Aurreko kapituluetan ikusi ahal izan denez, euskararen erabilera, bai ahozko komunikazioan eta bai idatzizkoan ere, oso txikia da, eta, honez gain, bi komunikazio-mota hauek nahikoa erlazionaturik daude. Aitzitik, bi komunikazio-mota hauen erabilera ez da homogenea, eta badira euskara ahozkoan erabili arren idatzizkoan erabiltzen ez duten establezimenduak, baita alderantzizkoa egiten dutenak ere.

Ahozko eta idatzizko komunikazioan euskararen erabilerari dagokionez gertatzen diren konbinazioak ezagutzeko helburuz, erabilera-tipologia bat gauzatu da. Aipaturiko hau bederatzi establezimendu-taldek osatzen dute, eta ondoko orriko grafikoan daude irudikaturik.

Aipaturiko grafikoan, ardatz horizontalak ahozko erabilera irudikatzen du eta idatzizkoa bertikalak. Koordinatu-gunea erabilera-eskalaren erdiarekin dator bat, ahozko erabilerari dagokion 5arekin eta idatzizkoari dagokion 5arekin, hau da, ahozko komunikazioan euskara zein gaztelania maila berean erabiliko lituzkeen eta idatzizko komunikazioan euskara aldi edo esparru erdietan erabiliko lituzkeen establezimendu-motarekin. Taldeen azalerak irudikatzen duena, berriz, ez da sakabanaketa, talde bakoitzean den establezimendu-kopurua baizik.

Grafikoan garbi ikus daitekeenez, ia establezimendu erdiak, %47, 1. taldekoak dira, hau da, ahozko zein idatzizko komunikazioan inoiz euskara erabiltzen ez dutenek osaturiko taldekoak. Bost taldetik lau, berriz, (1.,2. eta 3. taldeak) hirugarren koadrantea ezkerreko beheko angeluan daude. Aipaturiko gunea, ahozko nahiz idatzizko komunikazioan euskara oso gutxi erabiltzen duten establezimenduek betetzen dute.

EUSKARAREN AHOZKO ETA IDATZIZKO ERABILERAREN TIPOLOGIA

Batez bestekoak	GUZTIRA	1. T	2. T	3. T	4. T	5. T	6. T	7. T	8. T	9. T
Ehunekoak	%100	%47	%22	%10	%5	%1	%3	%3	%6	%3
Ahozko erabilera	2,0	0,1	0,3	2,2	2,2	4,6	4,0	7,2	6,5	9,6
Idatzizko erabilera	2,3	0,1	2,7	1,9	8,5	1,8	6,1	2,7	8,7	8,5

1. **1. taldea** (guztizkoaren %47). Talderik ugariena da, eta euskara ahozko nahiz idatzizko komunikazioan (0,1 eta 0,1 punturekin hurrenez hurren) inoiz erabiltzen ez duten establezimenduek osatzen dute.
2. **2. taldea** (%22). Bigarren talde ugariena da eta euskara ahozko komunikazioan ez erabili arren (0,3), idatzizkoan pitin bat erabiltzen duten (2,7) establezimenduek osatzen dute.

Hurrengo bi taldeak euskara ahozko komunikazioan pitin bat erabiltzen duten establezimenduei dagozkie (2,2 puntu batez beste), eta guztizkoaren %15 dira.

3. **3. taldea** (%10). Euskara pitin bat erabiltzen dute ahozko (2,2) nahiz idatzizko (1,9) komunikazioan.
 Erdiak tabernak dira eta jatetxeak gainerako erdiak. Tabernarik gehienak txikiak dira eta bi langile baino gehiagokoak jatetxeak, eta gune soziolinguistiko guztietan kokaturik daude, 4. gunean izan ezik.
4. **4. taldea** (%5). Ahozko komunikazioan pitin bat erabiltzen dute euskara (2,2) eta beti edo ia beti idatzizkoan (8,5).
 Gehienak tabernak dira (%85), ez dira txikiak guztiak, eta 3. eta 2. gune soziolinguistikoetan kokaturik daude, Gipuzkoan batik bat (%82).

Hurrengo bi taldeak euskara ahozko komunikazioan (4 puntu batez beste) asko samar erabiltzen duten establezimenduek osaturikoak dira, nahiz eta gaztelania baino gutxiago erabiltzen duten. Aipaturikoak, guztizkoaren %4 baino ez dira. Gehienak (%70) 3. gune soziolinguistikoan kokaturik daude eta gainerakoak 2. gunean nagusiki.

5. **5. taldea** (%1). Talderik txikiena da, eta ahozko komunikazioan euskara ia gaztelania adina erabiltzen duten (4,6) eta idatzizkoan euskara gutxi (1,8) erabiltzen duten establezimenduek osatzen dute.
 Ia guztiak (%95) bi langile baino gehiagoko jatetxeak dira (hirutik bat bost langile baino gehiagokoak), eta hirutik bi Gipuzkoan eta gainerako herena Bizkaian kokaturik daude.
6. **6. taldea** (%3). Ahozko komunikazioan asko samar erabiltzen dute euskara (4,0), ez hala ere gaztelania adina, eta asko erabiltzen dute idatzizkoan (6,1). Erdiak tabernak dira eta jatetxeak gainerako erdiak. Tabernarik gehienak txikiak dira eta bi langile baino gehiagokoak jatetxeak; erdiak Gipuzkoan eta gainerako erdiak Bizkaian kokaturik daude.

Hurrengo bi taldeak ahozko komunikazioan euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen duten establezimenduek osatzen dituzte (7 puntu batez beste), eta guztizkoaren %9 dira. Hirutik bi 3. gune soziolinguistikoan kokaturik daude eta gainerako herena 4. gunean.

7. **7. taldea** (%3). Euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dute ahozko komunikazioan (7,2); idatzizkoan, ordea, gutxi erabiltzen dute (2,7).

Erdiak tabernak dira eta jatetxeak gainerako erdiak. Tabernarik gehienak eta jatetxeak ere, hein handi batean, txikiak dira. Hirutik bi Bizkaian kokaturik daude eta gainerako herena Gipuzkoan.

8. **8. taldea** (%6). Euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dute ahozko komunikazioan (6,5), eta beti edo ia beti idatzizkoan (8,7).

Taberna baino jatetxe gehiago dira. Tabernarik gehienak eta jatetxeak ere, hein handi batean, txikiak dira. Hirutik bi Gipuzkoan kokaturik daude eta gainerako herena Bizkaian.

Azkenik:

9. **9. taldea**(%3). Beti erabiltzen dute euskara ahozko komunikazioan (9,6) eta beti edo ia beti idatzizkoan (8,5).

Hirutik bi jatetxeak dira eta gainerako herena tabernak. Gehienak oso txikiak dira eta 4. gune soziolinguistikokoan kokaturik daude (zenbait baita 3. gunean ere); erdiak Gipuzkoan eta gainerako erdiak Bizkaian.

Maila "bereziko" jatetxeak tipologiako talde guztietan barreiatuak daude, baina ondorengoetan pilatzen dira batik bat: %26, 6. taldean; %17, 8.ean; eta %17, 1. taldean.

EUSKARAREN AHOZKO ETA IDATZIZKO ERABILERAREN TIPOLOGIA

% Bertikalak	GUZTIRA	1. T	2. T	3. T	4. T	5. T	6. T	7. T	8. T	9. T
Ehunekoa	%100	%47	%22	%10	%5	%1	%3	%3	%6	%3
<i>Jarduera:</i>										
Jatetxeak	%24	%16	%18	%47	%15	%95	%47	%47	%39	%33
Tabernak	%76	%84	%82	%53	%85	%5	%53	%53	%61	%67
<i>Langile-kopurua:</i>										
1 – 2	%76	%82	%83	%59	%75	%0	%45	%60	%58	%89
3 – 5	%18	%13	%13	%30	%16	%66	%38	%31	%32	%10
6 – 9	%3	%3	%2	%6	%3	%18	%5	%3	%8	%0
> 9	%3	%2	%2	%5	%6	%16	%12	%6	%2	%1
<i>Herrialdea:</i>										
Gipuzkoa	%31	%17	%19	%55	%82	%64	%47	%36	%70	%52
Bizkaia	%56	%61	%71	%37	%17	%36	%53	%64	%29	%48
Araba	%13	%22	%11	%8	%1	%0	%0	%0	%0	%0
<i>Gune soziolinguistikoa:</i>										
4. gunea	%5	%0	%0	%0	%2	%11	%0	%25	%34	%79
3. gunea	%19	%8	%8	%24	%51	%68	%73	%75	%61	%21
2. gunea	%24	%21	%31	%41	%41	%19	%19	%0	%5	%0
1. gunea	%51	%71	%62	%35	%6	%3	%9	%0	%0	%0

5.- EUSKARAREN ERABILERARI BURUZKO BALORAZIOAK.

Elkarrizketaturiko pertsonen beren establezimenduan euskarari ematen zaion erabilera eskasa edo egokia ote den galdetzerakoan, 0 (eskasa) eta 10 (oso egokia) bitarteko eskalan lortutako batez bestekoa 3,6 puntukoa izan da. Horren arabera, %10ek oso egokitzen du (9-10), %8k egokitzen du (7-8), %28k ez egoki eta ez eskastzen (4-6), %20k eskastzen (2-3) eta %33k oso eskastzen (0-1).


Hortaz, bostetik batek, %18k, egokitzen du, eta erdiak, %53k, eskastzen. Proportzio hauek saltokietan lortutakoak dira.

Jatetxeetan, hauek baitira euskara gehien erabiltzen dutenak, %24k jotzen du egokitzen, baita tabernen %16k ere.

Dena den, emaitzek balio handiagoa lukete euskarak establezimenduan duen erabilera orokorraren arabera aztertuko balira.

Erantzunak nahikoa koherenteak dira, nahiz eta inoiz euskara erabiltzen ez duten establezimenduen %10ek eta pitin bat erabiltzen dutenen %21ek euskarari ematen dioten erabilera-maila egokitzen duten. Gainerako kolektiboak dagoenez, asko samar erabiltzen dutenen %21ek, asko erabiltzen dutenen %70ek eta beti erabiltzen dutenen %100ek ere egokitzen dute euskarari ematen dioten erabilera-maila.

Eskastzen dutenak, berriz, inoiz erabiltzen ez duten establezimenduen %55, pitin bat erabiltzen dutenen %73, asko samar erabiltzen dutenen %39 eta asko erabiltzen dutenen %10 dira.



ERABILERA: TXIKIEGIA ALA EGOKIA?

% Bertikalak	GUZTIRA	Inoiz ez	Zerbait	Nahikoa	Asko	Beti
Oso egokia	%10	%6	%4	%8	%27	%76
Egokia	%8	%4	%2	%13	%43	%24
Ez txikia, ez egokia	%28	%34	%21	%40	%20	%0
Txikia	%20	%9	%38	%33	%10	%0
Txikiegia	%33	%46	%35	%6	%0	%0

Establezimenduen neurriaren arabera balorazioetan ez da aldaketa handirik, nahiz eta handienetan, hamar langile edo gehiagokoetan, erabilera eskatzat dutenen portzentajea aski txikiagoa den, %37koa.

Gune soziolinguistikoen arabera ere ez da alde handirik, 4. gunean izan ezik, hemen ez baitu inork erabilera eskatzat jotzen. Lurraldekako alde handirik ere ez da. Modu honetan, Bizkaiko establezimenduen %56k, Gipuzkoako %54k eta Arabako %47k eskatzat dute euskarari ematen dioten erabilera-maila.

Eta euskararen erabilera establezimendurako garrantzitsu jotzen ote duten galdetzerakoan, 0 (ez batere garrantzitsua) eta 10 (oso garrantzitsua) bitarteko eskalan lortutako puntuazioa 4,9 puntukoa izan da. Honen arabera, %27k oso garrantzitsu jotzen du (9-10), %14k nahikoa garrantzitsu (7-8), %18k ez garrantzi handiko eta ez txikiko (4-6), %11k garrantzi txikiko (2-3) eta %30ek ez dio batere garrantzirik ematen.


Hau da, oso garrantzitsu eta nahikoa garrantzitsu jotzen duten establezimenduen kopurua, %41, eta garrantzi txikia edo batere garrantzirik ematen ez diotenena, %41, bat datoz. Proporzio hauek saltokietan lortutakoen parekoak dira.

Nolanahi dela ere, emaitzak aski ezberdinak dira jatetxe eta tabernetan; euskararen erabilera garrantzitsu jotzen duten jatetxeak %60 baitira eta %35 bakarrik tabernak.

Euskara inoiz erabiltzen ez duten establezimenduen artean, %14k bakarrik jotzen du nahikoa edo oso garrantzitsu; hirutik bik, berriz, %65ek, oso garrantzi txikia edo inongo ez dio ematen.

EUSKARAREN ERABILERAREN GARRANTZIA ERABILERAREN ARABERA


% Bertikalak	GUZTIRA	Inoiz ez	Zerbait	Nahikoa	Asko	Beti
Oso garrantzitsua	%27	%6	%31	%51	%75	%94
Nahiko garrantzitsua	%14	%8	%19	%34	%16	%6
Ez handia, ez txikia	%18	%22	%17	%14	%10	%0
Garrantzi txikia	%11	%13	%17	%1	%0	%0
Batere garrantzirik ez	%30	%52	%16	%0	%0	%0



Establezimenduak handitu ahala, euskarari emandako garrantzia ere handitu egiten da tabernen kasuan; ez da ia aldatu ere egiten, ordea, jatetxeen kasuan.

Alderik handienak gune soziolinguistikoaren arabera dira. Gisa honetan, 4. guneko establezimenduen %100ek, 3. guneko %77k, 2. guneko %45ek eta 1. guneko %19k garrantzitsu jotzen dute. Lurraldeka, berriz, Gipuzkoako establezimenduen %63k, Bizkaiko %33k eta Arabako %23k garrantzitsu jotzen dute.

Azkenik, establezimenduen %38k euskara erabiltzeak abantailak dituela pentsatzen du, eta %3k bakarrik desabantailak dituela.



Abantailei dagokienez ere alde handiak daude taberna eta jatetxeen artean. Euskara erabiltzeak abantailak dituela pentsatzen duten jatetxeak %58 eta tabernak %32 dira.

Neurria handitu ahala, abantailak dituela pentsatzen dutenen portzentajea ere asko handitzen da tabernen kasuan; ez, ordea, jatetxeetan.

Gune soziolinguistikoen eta lurraldeen arabera aldeak ere handiak dira. Modu honetan, lurraldeka, abantailak dituela uste dutenak %56 dira Gipuzkoan, %31 Araban eta %30 Bizkaian.

Establezimendurik gehienek aipatzen duten abantaila komunikazio- eta zerbitzu-mailako hobekuntzari dagokiona da.

Proportzio txikiagoan aipatzen direnak, berriz, honakoak: bertako hizkuntza izateari, irudiari, hizkuntza sustatzeari loturikoak edota zenbait bezero gaztelaniaz ongi moldatzen ez direlako erabiltzeari loturikoak.

Aitzitik, ez da kolektibokako alde handirik euskararen erabilerak desabantailak dituela uste dutenen portzentajearen. Bitxia bada ere, portzentajerik handiena, %7koa, 3. gune soziolinguistikoko Gipuzkoako establezimenduei dagokiena da.

Gehien aipaturiko desabantaila zenbait bezerok euskaraz ez jakitea da.

Eta gutxixeago aipatzen direnak: bi hizkuntza erabiltzeko beharra, zenbait bezerok nahiago izaten duela gaztelaniaz hitz egin, euskara ikasteko zailtasunak eta langileren batek euskaraz ez jakitea.

6.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO NEURRIAK.

Jatetxe eta tabernen %4k bakarrik dute euskara normalizatzeko neurriren bat, nahiz eta portzentaje hau txikizkako saltokietan lortutakoa (%2) baino handiagoa den.

Honez gain, kasu erdietan baino gehiagotan aipatutako neurria bezero euskaldunekin euskaraz mintzatzeko gomendioa da, eta, askoz proportzio txikiagoan, lehen hitzak euskarazkoak izatea.

Hona hemen askozaz gutxiago aipaturiko beste hainbat neurri: euskara ikasteko erraztasunak ematea, idatzizko komunikazio elebiduna, publizitate elebiduna, langile euskaldunak kontratatzea eta euskarazko musika jartzea.



Euskara normalizatzeko neurriren bat duten establezimenduen portzentajea jatetxeetan tabernetan baino handiagoa da (%7 eta %3 hurrenez hurren).


Neurriari dagokionez, berriz, portzentajea bi langile baino gutxiagoko establezimenduetan baino handiagoa da bi langile baino gehiagokoetan.

EUSKARAREN BALORAZIOA LANGILEAK HAUTATZERAKOAN.

Jatetxe eta tabernen %23 azken bi urte hauetan langileren bat modu egonkorrean kontratatutakoa da.

Lau establezimendutik hiruk baino gehiagok, %78k, ez zuen euskararen ezagutza kontuan hartu langilea hautatzerakoan, seitik batek, %17k, merezimendu gisa hartu zuen kontuan, eta %6k bakarrik baldintza gisa.

Aitzitik, euskarari beste hizkuntzei baino garrantzi handiagoa ematen zaio; %2 establezimendutan bakarrik hartu baitira beste hizkuntzak baldintza gisa eta %12tan merezimendu gisa. Eskaerarik gehien duen hizkuntza ingelesa da alde handiz, eta frantsesa ondoren.



Halarik ere, alde handiak daude jatetxe eta tabernetan, %10 jatetxek baitute baldintzatzat eta %24k merezimendu gisa; tabernen kasuan, ordea, %2k du baldintza gisa eta %10ek merezimendutzat. Gainera, jatetxeek tabernekin baino aski kontratu gehiago egiten dituzte.

EUSKARAREN BALORAZIOA

% Bertikalak	OROKORRA	Jatetxeak	Tabernak
Baldintza	%6	%10	%2
Meritu	%17	%24	%10
Ez	%78	%66	%88

Euskara baldintza gisa eskatzen duten ia establezimendu guztiak Gipuzkoan kokaturik daude, eta establezimenduaren neurria zenbat eta handiagoa izan eskaera ere handiagoa da.

Asteburuetarako, udarako... kontrataturiko pertsonen dagokienez, modu egonkorrean kontrataturiko pertsonetan baino gehixeago hartzen da kontuan euskara. Kasu honetan, euskara baldintza gisa eskatzen duten establezimenduen portzentajea pitin bat handiagoa da, %8koa, eta asko handitzen da merezimendu gisa hartzen dutenena (%17tik %36 arte).


Enplegatu egonkorren kasuan bezala, baldintza gisako eskaera tabernetan baino askoz handiagoa da jatetxeetan (%1 eta %16, hurrenez hurren). Honez gain, eskaera hau egiten duten establezimendurik gehienak Gipuzkoan kokaturik daude, eta establezimenduaren neurria zenbat eta handiagoa izan orduan eta handiagoa da eskaera ere.

EPE LABURREAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO HARTUKO DIREN NEURRIEN AURREIKUSPENA.

Establezimenduen %6k bakarrik dute epe laburrean establezimenduan bertan euskararen erabilera normalizatzeko neurriren bat edo beste hartzeko aurreikuspena, eta portzentaje honi dagokionez ez da alderik jotetxe eta tabernen artean. Portzentaje hori, gainera, bat dator saltokietan lortutakoarekin.

Gehien aipaturiko neurria euskara ikasteko ikastaroetara joatean datzana da.

Proportzio txikiagoan aipatu direnak, berriz, honakoak izan dira: euskaraz gehiago hitz egiten saiatzea, langile euskaldunak kontratatzea, Udalak ematen dizkien kartelak jartzea, eta idatzizko komunikazioan elebitasuna sartzea (karta eta menua, errotulazioa, fakturak, web-orriak).



Hizkuntza-normalkuntzarako neurriak hartzeko asmoa duten establezimendurik gehienak Gipuzkoan kokaturik daude, 3. gune soziolinguistikoan batik bat.

HPSrekin HARREMANETAN JARTZEKO JARRERA


Galdeketa amaitutakoan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza haiekin hartu-emanetan jar zedin gustatuko ote litzaiekeen galdegin zitzaien elkarrikketa-turiko pertsoneri; modu honetan, aholku eman ez ezik errotulazioari, publizitateari, etab. loturiko hizkuntza normalizatzeko neurriak garatzen ere lagun diezaien.

Lautik batek, %26k, baiezkoa eman zuten; proposaturiko hizkuntza-normalkuntzarako neurriren bat edo beste HPSrekin lankidetzan garatzeko inte-resa baitzuten.

Gehien onarturiko neurria, a priori behitzat, beren beharretara egokituriko iraupen gutxiko euskara-ikastaroak egitea da; guztizkoaren %16k interesa duela baitio eta %6k interesa lukeela agian.

Hona hemen, euskararen erabilerari loturiko neurriak:

- Ticket eta fakturetan, %9k bai eta %6k agian.
- Errotulazioan, %9k bai eta %5ek agian.
- Kartan eta menuan, %8k bai eta %4k agian.
- Publizitatean, %7k bai eta %4k agian.



Hala eta guztiz ere, jatetxe eta tabernen arteko emaitzen arteko aldeak handiak dira oraingoan ere.

Jatetxeetan, Sailburuordetzarekin harremanetan jartzeko prest dauden establezimenduen portzentajea gutxienekeko %14ko eta gehienezko %19ko portzentajeen artean dabil; lehen portzentajea publizitateari loturikoa litzateke, eta karta eta menuei nahiz euskara-ikastaroak dagokienez bigarrena.

Tabernetan, aldiz, portzentajea %5 edo %6 da neurri guztietan, euskara-ikastaroetan izan ezik, %15era igotzen baita.

Establezimenduen neurriari dagokionez, ez da alde handirik; txikienetan salbu, hauetan interesa askoz ere txikiagoa baita.

Lurralde eta gune soziolinguistikoen arabera emaitzak nahikoa "bitxiak" dira. Lurraldeei bagazozkie, interesik handiena dutenak Gipuzkoa eta Arabakoak dira. Gune soziolinguistikoen arabera, ordea, interesa aldatu egiten da neurriaren arabera. 4. gune soziolinguistikoko establezimenduak dira errotulazioan eta karta eta menuetan interesik handiena dutenak; 2. nahiz 1. gunekoak, berriz, euskara-ikastaroetan interes handiena dutenak.

Bitxikeria gisa esatekoa da, arabar establezimenduak direla euskara-ikastaroak laburrak hartzeko interesik handiena dutenak. Datu honek, edozein kasutan, bere logika ere izan dezake eta, honez gain, itxaropentsua ere bada. Baina, era berean, elkarrizketaturiko pertsonen borondate ona zalantzan jarri gabe, erantzun honen egiazko balotasuna dudak jar daitekeena da.


HPSrekin KONTAKTUAN JARTZEKO JARRERA

<i>Portzentajeak</i>	<i>Errotulazioa</i>	<i>Karta, menua</i>	<i>Ticketak, fakturak</i>	<i>Publizitatea</i>	<i>Euskara ikastaroak</i>
<i>Guztira</i>	%9	%8	%9	%7	%16
<i>Jarduera:</i>					
Jatetxeak	%16	%19	%18	%14	%19
Tabernak	%6	%5	%6	%5	%15
<i>Langile-kopurua:</i>					
1 – 2	%6	%5	%6	%5	%14
3 – 5	%15	%15	%16	%15	%20
6 – 9	%17	%23	%18	%17	%23
> 9	%15	%17	%23	%16	%26
<i>Herrialdea:</i>					
Gipuzkoa	%12	%13	%13	%11	%18
Bizkaia	%6	%5	%5	%5	%13
Araba	%12	%7	%16	%9	%21
<i>Gune soziolinguistikoa:</i>					
4. gunea	%17	%17	%8	%8	%8
3. gunea	%8	%8	%9	%8	%9
2. gunea	%13	%14	%16	%9	%23
1. gunea	%6	%4	%6	%6	%16

LABURPENA ETA ONDORIOAK.

EAEko jatetxe eta tabernarik gehienak oso establezimendu txikiak dira, tabernak bereziki, eta oso gutxi erabiltzen dute euskara, bai ahozko komunikazioan (0 eta 10 eskalan, 1,5 punturekin) eta bai idatzizkoan (2,3 punturekin) ere. Horietan %60k euskaraz ez dakiela kontuan hartzen badugu, datu hauek ez dira batere harritzekoak. Nolanahi dela ere, jatetxeetako erabilera (2,4 puntukoa ahozkoan eta 2,9koa idatzizkoan) tabernetakoa baino pitin bat handiagoa da (1,2 puntukoa eta 2,1 puntukoa, hurrenez hurren)

Eraitza orokorrak saltokietan lorturikoen antzekoak dira, eta, kasu horretan bezala, euskararen ahozko eta idatzizko erabileraren tipologiak oso ongi islatzen du aniztasuna.



Goiko eskuineko erpinean 9. taldea dago kokaturik. Talde hau establezimendu-kopuru txikiak osatzen du, %3k, eta ahozko nahiz idatzizko komunikazioan beti edo ia beti euskara erabiltzen dutenak dira. Gehien-gehienak oso establezimendu txikiak dira eta gune euskaldunagoetan kokaturik daude (4. gunean eta, hein batean, 3. gunean).

9.enetik gertu kokaturiko 8. taldearekin batera (%6), establezimendumultzoaren %9 dira ahozko nahiz idatzizko komunikazioan gehienbat euskara erabiltzen duten establezimenduak.

Aurkako erpinean, beheko ezkerrekoan, 1. taldeak ia establezimendu erdiak hartzen ditu bere baitan, %47. Talde honetan inoiz euskara erabiltzen ez dutenak batzen dira, gehienak tabernak dira, eta gunerik erdaldunenetan kokaturik daude (2.ean eta, nagusiki, 1.an).

2. taldea (%22) eta 3. taldea (%10) 1. taldetik oso gertu kokaturik daude. 2. taldea idatzizko komunikazioan euskara pitin bat erabiltzen duten establezimenduek osaturikoa da; 3. taldea, berriz, ahozko komunikazioan euskara apur bat erabiltzen dutenek osatua. Hiru talde hauek guztizkoaren lau bostenak hartzen dituzte; hots, %79.

Bi erpinak batzen dituen lerroaren azpiko aldera, 5. eta 7. taldeak aurki daitezke; hots, guztizkoaren %4 osatzen dutenak. Talde hauek euskara idatzizko komunikazioan (gutxi edo pitin bat) baino ahozkoan gehiago (gaztelania adina edo gehiago) erabiltzen duten establezimenduak hartzen dituzte barne. Gune euskaldunetan kokaturik daude.

Aipaturiko lerroaz goiko aldera, berriz, 4. eta 6. taldeak aurki daitezke; guztizkoaren %8. Talde hauek osatzen dituzten establezimenduek idatzizko komunikazioan (nahikoa edo asko) ahozkoan baino gehiago erabiltzen dute euskara (gaztelania baino gutxiago). Gehienak gune euskaldunetan kokaturik daude.

Hortaz, ia establezimendu erdiek ez dute euskara inoiz erabiltzen, eta bostetik lau dira inoiz erabiltzen ez dutenak edo oso gutxitan erabiltzen dutenak.

Kontrako muturrean, %9 bakarrik dira gehienbat euskara erabiltzen dutenak, eta gainerako %12k gune soziolinguistikoaren arabera, batik bat, erabiltzen du gehiago edo gutxiago.

Gune soziolinguistikoa jatetxe eta tabernetako euskararen erabileran funtsezko faktore eragingarria da. Honek, hein handi batean, ahozko komunikazioari dagokion erabilera argitzen du eta, neurri txikiagoan bada ere, baita idatzizko komunikazioari dagokiona ere.

Hala eta guztiz ere, gune soziolinguistikoaren eta euskararen erabileraren arteko harremana ez da hertsiki "graduala edo jarraitua". Hain zuzen ere:

- 4. gune soziolinguistikoan eta, hein batean, baita 3. gunean ere, euskaldunen portzentajea esaterako %70 baino handiagoa den udaletan, euskararen erabilera gehienena da, ahozko komunikazioan batik bat.

- Baina 3. gunean bertan, portzentaje hori %70 baino txikiagoa denean, "bat-bateko" beherakada gertatzen da, tabernetan batez ere.
- 2. gunean, berriz, erabilera ia nulua da; 3. gunetik baino 1.tik gertuago baitago.

Saltokietan gertatzen zenaren aurka, jarduerak badu eraginik erabileran; jatetxeetako erabilera tabernetakoaren ia bikoitza baita. Hiru dira alde hau azaltzen duten arrazoiak:

- Jatetxeak, batez beste, tabernen kokaleku diren guneak baino apur bat euskaldunago diren guneetan kokaturik daude.
- Jatetxeetako nagusi eta langileen artean den euskaldunen proportzioa hurbi-leneko inguruan dutena baino handiagoa da batez beste, hau da, kokaleku duten ingurua baino zertxobait euskaldunagoa den mundutik heldu dira.
- Aurreko arrazoiak eta establezimendu txikien proportzioa jatetxeetan tabernetan baino askoz txikiagoa dela dioen beste zio hau batuz, inork euskaraz ez dakien jatetxeen portzentajea, hots, %34, tabernei dagokienaren (%68) erdia izatea du ondorio.

Jatetxeetako eta tabernetako erabilera bereizirik aztertuz gero, establezimenduen neurriak ez du eragin handirik erabilera-mailan. Jatetxeetan, idatzizko komunikazioari dagokion erabilera zertxobait handiagoa da neurririk handienekotan, eta tabernetan, ahozko komunikazioaren erabilera pitin bat txikiagoa da txikienetan (horietan, inork euskaraz ez dakien tabernen portzentajea handiagoa baita).

Azkenik, euskararen erabilera normalizatzeko neurriak dituztenak %7 jate-txe eta %3 taberna bakarrik direnez eta, honez gain, neurri hauek kasurik gehienetan euskara bezeroekin gehiago erabiltzean oinarrituriko "gomendioak" besterik ez direnez, euskararen erabileran duten eragina oso txikia da.

Jatetxe eta tabernetan euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartzeari dagokionez, gure ustez, saltokien kasuan bezala establezimendu hauek ere asko eta ikuspuntu soziolinguistikoaren arabera askotarikoak direnez, horretara bideratutako ikuspuntuak eta inplementazioak tokian tokikoa edo eskualde-mailakoa izan behar du, kasuaren arabera. Horretan, gainera, hainbat udal sustatzen hasiak diren hizkuntza-normalkuntzarako plangintzek funtsezko egitekoa izan behar dute, nahiz eta jardueren diseinua, antolakuntza eta koordinazioa, logikoa denez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren esku egongo liratekeen.

Hala ere, neurririk handieneko jatetxeetan edo maila "berezikoetan" oinarri harturiko ikuspuntuak eta inplementazioak EAE osorako izan litezke baliagarri. Hori dela eta, HPSk egin ahal izango luke zuzenean lan guztia.

Ahozko komunikazioan euskararen erabilera sustatzeari dagokionez, berriz, jardute-esparrua oso mugatua da.

Litekeena da tipologiako 4., 5., 6., 7. eta 8. taldeetan (guztizkoaren %18 diren horietan), hau da, gehiago edo gutxiago euskara erabiltzen duten eta nagusiki 3. gune soziolinguistikoan kokaturik daude horietan, jarduera egokien bidez erabilera hori handitu ahal izatea. Izan ere, hasieratik bertatik bai baitituzte hori lortzeko baldintzak; hots, nagusiki euskalduna den ingurua eta langileria.

Talde hauetako establezimenduen erdiak, gutxi gorabehera, jatetxeak dira eta bi langile baino gehiago dituzte.

Gainerako taldeetan (1., 2. eta 3. taldeetan), hots, bost establezimendutik lautan, oso taberna txikiak dira gehienak, eta, saltokien kasuan bezala, horietan gehienetan inork euskaraz ez jakitea da arazorik nagusia. Honi gehitzeko arazoa da, halaber, ingurua nagusiki erdalduna dela eta gutxiengo batek bakarrik uste duela euskararen erabilera garrantzitsua dela.

Establezimendu hauetan langile euskaldunak egon daitezen bi alternatiba bakarrik daude; langile euskaldunak kontratatzea edo langileak euskalduntzea.

Kontratazioari dagokionez, establezimendu hauek langile gutxi kontratatu ohi dituzte eta, honez gain, kontratazioak egiterakoan gehienek ez dute langileen euskararen ezagutza kontuan hartzen.

Euskalduntzeari dagokionez, berriz, aintzat hartzekoa den gutxiengo batek, %16k, iraupen gutxiko euskara-ikastaroekiko interesa adierazi badu ere, berriz, interes hori praktikan nola gauzatuko litzatekeen baloratzen hasi gabe, establezimendu hauetan gehienetan pertsona batek edo bik lan egiten dutela eta hortaz ordutegi-askatasun txikia dutela hartu behar da kontuan. Bestalde, beren beharretarako egokituriko ikastaro laburren eskaintza garatu beharra dago.

Aitzitik, idatzizko komunikazioan euskararen erabilera handitzeari dagokionez, baliabide eta antolakuntza egokiak izanez gero, jarduteko tarte oso zabala da.

Alde batetik, tabernarik gehienetan idatzizko komunikazioa errotulaziora eta ticket eta fakturretara mugatzen da. Jatetxeetan, dena den, esparru hauei kartak eta menuak nahiz publizitatea gehitu behar zaizkie. Edozein kasutan, esparru hauetan guztietan nahikoa erraz har daiteke esku. Bestalde, ia alor hau guztia "konkistatzeke" dago, eta aintzat hartzeko modukoa den gutxiengoa aurki daiteke hemen ere, hau da, gaiarekiko interesa adierazi dutenek osaturikoa, nahiz eta kasu honetan interes hau sinesgarriagoa izan daitekeen. Gutxiengo hau jate-txeen %16k eta tabernen %6k osatzen du.